

73 Zenbakia - Data: 16/06/2000

III. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA - ANTSOAIN

Behin betiko onespena ordenantzari

Antsoingo Udalak, 2000ko maiatzaren 31n egin osoko bilkuran, erabaki zuen behin betikoz onestea Antsoingo udal esparruan euskararen erabilera eta sustapena arautzen dituen ordenantza.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 326. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, argitara ematen da Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN haren testu osoa:

Antsoainen, bi milako ekainaren bian. Alkate udalburua, Alfredo García.

ANTSOAINGO UDAL ESPARRUAN EUSKARAREN ERABILERA ETA SUSTAPENA ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

ZIOEN ADIERAZPENA

Antsoingo Udalarentzat, euskara da udalerriko bi hizkuntza berezkoetariko bat. Gainera, ordenantza honetan, kontutan hartzen du euskararen sustapenaz eta normalkuntzaz den bezainbatean, herritarrek duten aldeko jarrera, bai Nafarroako Gobernuak, bai Euskararen aldeko Patronatuak gaurdaino egin dituzten azterketa sozio-linguistikoetatik ondorioztatzen den bezalaxe.

Bestalde, eta euskarak egun duen egoeraren aurrean, konpromezua hartzen du horren babesnerako beharrezkoak diren neurriak hartzeko, euskara hizkuntza gutxiagotua eta, zalantzarik gabe, ondare kulturala baita, bere normalizazioa lortu ahal izateko, laguntza berezia behar duena.

Gizarteak euskararen alde duen borondatearen ondorioz, Antsoingo biztanlegoa, urteak iragan ahalean, gero eta elebidunagoa izanen dela, hau da, gero eta euskaldun gehiago biziko direla bertan. Horren adierazle da, azken hiru urtetan (1996-1999), Antsoingo Udal Erroldaren 3 urteko umeen matrikularen portzentajea, %46a D ereduan izan dela. Gizarte sektore horrek, legeak onartzen dizkion hizkuntza eskubideak erabiliz, Udalarari gero eta zerbitzu gehiago galdatu ahal izanen dizkio euskaraz, baita galdatuko ere, noski, eta Udalak, zerbitzu publikorako bokazioa izanik, erantzun beharko dio nahitaez eskari horri.

Hortaz, Udalak Antsoingo bizilagunei zerbitzu eta harrera euskaraz egitea bermatzea da ordenantza honen xede generikoa, hala nola udal esparru desberdinetan bere erabilera sustatzea eta normalizatzea.

Udalaren nahiz herritarren gogo argi honez landa, aipatu beharra dago Espainiako Konstituzioak Espainiako hizkuntzek daukaten kultur ondarea bereziki errespetatzea eta babesteko manua egiten diela botere publikoei; Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen helburua dela herritarrek euskara jakin eta erabiltzeko duten eskubidea babestea eta haren berreskurapena eta garapena begiratzea; Lege berak herritarrei aitortzen diela administrazio publikoekiko harremanetan, euskara erabiltzeko eskubidea, eta aurreikusten duela, zonalde mistoan, halako lanpostu batzuetan nahitaezkoa izaten ahal dela euskaraz jakitea eta gainerakoetan kontutan hartzen ahal

dela; eta, azkenik, Nafarroako Administrazio Publikoetan Euskararen Erabilera arautzen duen uztailaren 4ko 135/1994 Foru Dekretuak aurreikusten duela horiek behar diren neurriak hartzea herritarrek administrazioari euskaraz egiteko duten eskubidearen berme, barne erabilpeneko inprimakietan euskara erabiltzeko joera, administrazioen artean euskara erabiltzeko aukera eta halako lanpostu batzuetan euskaraz jakitea eskatu ahal izatea, eta bertze batzuetan, berriz, merezimenduztat hartzea, baina beti ere, euskararen ezagutza nahitaezkoa finkatzen den lanpostuetan dauden pertsonak lortutako eskubideak errespetatuz.

Aipatu araudia kontutan harturik eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 324. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoari jarraikiz, ondoko ordenantza onestea erabaki da.

I. KAPITULUA

Ordenantzaren xedea eta aplikazio esparrua

1. artikulua. Ordenantzaren xedea da, euskararen erabileraren sustapena eta normalizazioa, Udal honen eskumenaren esparru guztietan.
2. art. Aipatutako helburua lortu eta bermatu ahal izateko, ordenantza honen berariazko xedek hauek dira: a) Hiritarrei zerbitzua bermatzea erabili nahi duten hizkuntzan. b) Zehaztea euskarak Udalaren kanpo irudian izan behar duen erabiltze-maila. c) Euskaraz zer lanpostutarako jakin behar den zehaztea, euskara lan hizkuntzatarako izan dezaketen administrazio prozedura ohikoenei begiratuta, eta horretarako batzorde bat sortu. d) Euskaraz jakitea nahitaezko ez duten lanpostuetan euskara zer portzentajetan baloratuko den zehaztea. e) Kaleen, auzoen eta hiriko gainontzeko elementuen izendegiak ezarri. f) Euskararen sustapenerako ordenantza honen helburuarekin lotura duten beste aktibitate batzuk bultzatu.
3. art. Ordenantza hau Antsoingo Udalean aplikatuko da. Ondorio hauetarako, halakotzat hartuko dira, bai berezkoetariko zerbitzuak, bai Erakunde Autonomoei dagozkienak eta haren menpeko enpresa publikoei ere bai.
4. art. Udalaren eskumeneko zerbitzu batzuk, hirugarrenek egiten badituzte, edozein dela ere horretarako kudeaketa modua, haietan ordenantza honen IV. kapitulua aplikatuko da.

II. KAPITULUA

Administrazioen arteko harremanak

5. art. Antsoingo Udalak bertze administrazio publikoei igortzen dizkien agiri, jakinarazpen eta adierazpen administratiboak, Nafarroako Foru Komunitatean badira, edo Euskal Autonomia Erkidegoan, Iparraldeko Zonalde Euskaldunean, eta euskara ohiko hizkuntza bezala erabiltzen duten entitate eta erakundeire, orokorrean, elebitan idatziko dira.

III. KAPITULUA

Herritarren eskubideak

6. art. Herritarrek Antsoingo Udalari gaztelaniaz nahiz euskaraz egiteko eskubidea dute.

7. art. Idatziz, Udalari euskaraz egitea hautatzen duten pertsoneri halaberean erantzunen zaie.

8. art. Ahoz, Udalari euskaraz egitea hautatzen duten herritarrei halaberean eginen zaie harrera.

9. art. 8. eta 9. artikuluan ezarritakoa betetzeko helburuarekin, Udalak jarduketa plan bat burutuko du, lantokietan, jendeari harrera egin behar bazaio, euskaraz mintzatuko diren udal langileen presentzia bermatzeko, Ordenantza honen V. kapituluaren xedatutakoaren arabera.

IV. KAPITULUA

Udalaren kanpo irudia

10. art. Antsoaingo Udalak gaztelania eta euskara erabiliko ditu herritarrengana modu orokorrean zuzentzen denean.

Hartara, elebitan eginen dira:

- a) Bandoak, ediktuak, kartelak eta argibideeetarako plakak.
- b) Zigiluak, tanpoiak, logotipoak, orriburuak eta gisakoak.
- c) Eraikin, karrika eta eremu publikoetako errotulazioa.
- d) Udal egoitza eta bulegoetako errotulazioa, Udalaren ibilgailuena, eta langileen arropa eta uniformeak.
- e) Interes turistikoa duten tokietako seinaleztapena, etzana nahiz zutikakoa izan, zerbitzuen kontroletakoa, eta bide seinaleak.
- f) Udalak herritarren eskura jartzen dituen agiriak eta ereduak, administrazio-prozedura ezberdinen berri emateko erabiltzen direnak.
- g) Udalaren kanpo irudia irudikatzeko erabiltzen den beste edozein euskarri edo bitarteko

11. art. Udalak elaboratutako publizitateko eta dibulgazioko elementu guztiek, honako irizpideak izanen dituzte:

- 1.-Karteletan osagai guztiak elebidunak izanen dira.
- 2.-Udal jardueri buruzko informazio eta propaganda foiletoak elebidunak izanen dira herritarrei modu orokorrean zuzentzen zaizkienean.
- 3.-Kulturan, kirolean, esku-programetan, katalogoetan e.a.etan, jarduketa baten berri emateko liburuxketan, hizkuntzak honela erabiliko dira:
 - a) Argibide orokorrak (lekua, data, ordua, e.a.) elebitan joanen dira.
 - b) Iragartzen duten jarduera, batik bat hizkuntzaren ahozko erabileran oinarritzen bada, (hitzaldiak, antzerkia, poesia, ikus-entzunezkoak, e.a.) horren gaineko azalpenak emateko erabiltzen diren baliabideetan, hala nola, eskuzko gitaraueetan edo

kalalogoetan, jarduera burutuko den hizkuntza erabil daiteke, beste hikuntzan laburpen txiki bat eginez.

c) Jarduera bestelako mintzaira mota batzuen bidez gauzatzen bada, hala nola, bisuala, musikala, plastikoa, eta abarren bitartez, argibideak bi hizkuntzetan emanen dira.

12. art. Publizitatea komunikabideetan.

Prentsan Udalak argitaratzen dituen udal iragarkiak elebikoak izanen dira.

Ikus-entzunezko komunikabideetan -irratian eta telebistan-publizitatea bi hizkuntzetan egingen da.

13. art. Argitalpenak.

Antsoingo Udalaren argitalpenak eta haren menpeko erakundeak elebitan egingen dira, interes orokorrekoak eta herritar guztientzat direnean, baita interes turistikoa eta Antsoainendako izaera enblematico edo sinbolikoa dutenean ere. Irizpide bera erabiliko da, Udal komunikabide berriak sortzen badira.

V. KAPITULUA

aren langileak eta barne funtzionamendua

14. art. Udalaren plantila organikoan zehaztuko da zer lanpostutarako, jendarekin harreman gehiago izateagatik edo administrazio prozedura normalduen katearen barnean duten lekuagatik, jakin behar duten euskaraz haiek okupatzen dituzten funtzionarioek, Ordenantza honen I. eranskinean egingen den proposamenari jarraikiz.

15. art. Aurreko artikuluan aurreikusitakoa betetzeko, Batzorde bat osatuko da eta horrek aztertuko ditu herritarrekin, ahoz zein idatziz, harreman handiagoak dituzten udal esparruak prozedura administratibo ohikoenak, aipatu esparru edo prozeduretan dauden lanpostuei dagozkien hizkuntz eskakizunen definizioa, herritarrei harrera euskaraz egitea berrmatuko dien zirkuitu elebidunen azterketa eta ezarritako helburuak bete ahal izateko bitartekoak, baliabideak eta epeak finkatuko dituen jardun- planaren xedapena (aspektu horiek I. eranskinean jasoko dira).

16. art. Batzorde honek, urtero ebaluazio txosten bat egingen du, aipatutako Eranskinean ezarritakoa betetzen den ikusteko, eta hala badagokio, aldaketarako egoki derizkion proposamenak egingen ditu.

17. art. Antsoingo Udalak lanpostuak betetzeko egiten dituen deialdi guztietan, hizkuntza jakitea merezimendutako sartuko da, I. eranskinaren arabera euskararen ezagutza nahitaezkoa ez bada.

18. art. Herritarrekin harreman zuzena ez duten lanpostuetan euskararen balorazioa % 5 izanen da deialdiako puntu guztien gainean (lehiaketa gehi oposizioa), eta harreman zuzena duten lanpostuetan euskararen balorazioa % 10 izanen da, I. eranskinean zehaztuko delarik.

19. art. Aurreko artikuluan ezarritakoari doakionean, euskararen ezagutza egiaztatuko da 135/1999 Foru Dekretuak preskribitzen duenaren arabera, zein behar bezala zehaztuta egonen da I. eranskinean agertuko diren hizkuntz perfilen proposamenean.

Nolanahi ere, euskaraz jakitea proba baten bidez egiaztatu behar baldin bada, Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiari eskatuko zaio bertako teknikariren bat egon dadin aholkulari.

20. art. Hizkuntz prestakuntzako planetan parte hartzen duten udal langileek, hala nola, udalean sartzeko euskararen ezagutza exigitu zaionari edo bere edozein lanaldirako dela, euskararen ezagutza bere lanean garatzeko exigitu ahal izango zaio.

VI. KAPITULUA

Euskararen sustapena

21. art. Antsoingo Udalak, Euskararen aldeko Patronatoaren bidez, jarduketa programak prestatuko ditu urtero, euskararen inguruko gaien gainean informazio maila handitzeko eta gizarte esparru guztietan haren ezagutza eta erabilpena sustatzeko.

22. art. Antsoingo Udalak Nafarroako Gobernuaren ekimen eta kanpainetan parte hartuko du, baita, banaka edo mankomunitate gisa ere beste toki entitateekin batera, burutzen dituzten sustapen kanpaina eta ekimenetan.

23. art. Gazte Berriak Kultur eta Kirol Patronatoak euskarazko jarduerak umeentzako eta gazteentzako eskainiko ditu. Halaber, gazteentzako eta helduentzako euskarazko kultur aktibitateak sustatuko ditu dagoen eskaera bermatuz.

24. art. Udalak Antsoingo euskaldunen zentsua egingen du, berme guztiak dituela egin ahal izateko haiendako kanpaina bereziak, hala nola, "Bai, esan ?", "Erabili euskara zure udaletxean", Bideoteka, e.a.

Gainera, hura egindakoan, udal erroldaren alta eta baja guztietan euskarari dagozkion galdera guztiak erantsiko dira, gisa horretan euskaldunen zentsua eten gabe eguneratu ahal izateko.

25. art. Euskararen aldeko Patronatoak, euskarazko jarduerak bultzatuko ditu, ludoteka, e.a. lehenetsunez umeentzako eta gazteentzako, populazio osoaren eskaera bermatuz.

26. art. Euskararen aldeko Patronatoak, Antsoainen bizi eta erroldan dauden pertsonen dirulaguntzekin lagunduko die, euskara ikastea aukeratzen dutenei, ikastaro trinkoetan, estensiboetan edo barnetegietan, II eranskinean jasoko den arabera.

VII. KAPITULUA

Antsoingo izen ofiziala

27. art. Udaleko Osoko Bilkurak Udalerriaren elebiko izena onetsiko du, Nafarroako Gobernuaren Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiari behar diren galderak egin ondoren, eta Nafarroako Gobernuari onespenez ofiziala eskatuko dio.

Udaleko Osoko Bilkurak, auzoen, kale-zerrenda eta hiriko beste elementuen izena onetsiko du, eta horretarako, Nafarroako Gobernuaren Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren lankidetzara eskatu ahal izango du.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenbizikoa.-Ordenantza hau indarrean sartuko da behin betiko onespenez gaineke erabakia Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hamabost egunetara.

Bigarrena.-Antsoaingo Udaleko Euskararen aldeko Patronatuak eskumena izanen du ordenantza hau betetzen ote den segimendua egiteko eta, hura bermatu edo hobetu beharrez, edozein gaiaren gainean proposamenak egiteko.

Hirugarrena.-V. Kapituluaren aurreikusitako batzordeak urte bateko epea dauka, Ordenantza hau indarrean sartzen denetik hasita, Udaleko Osoko Bilkurari I eta II. eranskinaren proposamenak egiteko